

ORDENAGAILUEN MAILEGUA. ARAUDIA

Zertan datza zerbitzu hau?

Ordenagailuak maileguz emateko zerbitzuak hauxe du helburu: erabiltzaileei prestakuntza, informazio eta aisia xedeetarako baliabideak erabil ditzaten erraztea

Nork erabil dezake?

Zerbitzu hau Donostiako Udal Liburutegi Sareko 14 urtetik gorako bazkideek erabili ahal izango dute. Bazkide zarella ziurtatzeko Donostia Kulturako txartela edo Liburutegi Sareko txartela aurkeztu behar da.

Zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak

- Mailegua ABSYSNET kudeaketa sistema automatizatuaren bidez egingo da. Erabiltzailearen bati arrazoi jakin batengatik (oraindik itzultzeko dauden maileguak...) sistema blokeatzen bazaio ezin izango du zerbitzu hau erabili.
- Mailegua 3 ordukoa da, berritzeko aukerarik gabe. Hamabost minutu pasa eta gero eskaririk ez balego, mailegua berriz ere egiteko aukera egongo.
- Ezin da erreserbarik egin. Ekipoak eskaera ordenari jarraituz mailegatuko dira soilik.
- Erabiltzaileak Liburutegi Sareko bazkide txartela eta NAN txartela edo pasaporteak aurkeztu beharko ditu mailegu-mahaian. Dokumentazio hau mailegu denbora amaitzean itzuliko zaio.
- Erabiltzailea da ekipoaren arduraduna eta zaindaria mailegatzen zaion denbora tartean. Ezin izango ditu ordenagailuan instalatuta dauden hardwarea eta softwarea manipulatu. Ordenagailua erabiltzaileari entregatu zaion baldintza beretan itzuli behar da.
- Erabiltzaileak hitz ematen du uneoro errespetatuko duela Jabetza Intelektualari buruz indarrean dagoen legeria, eta Internetarako sarbide zerbitzua behar bezala erabiliko duela. Liburutegia ez da inoiz ere ez erabiltzaileek zerbitzua erabiliko duten moduaren erantzule izango ezta berreskuratu dezaketen informazioarena edo sar daitezkeen informazioarena ere. Sistema informatikoan gerta daitezkeen matxurak edo eroriak eta transmisioaren abiadura ez dira liburutegiaren erantzukizuna.
- Erabat debekatuta dago sexu-eduki esplizituko, delitu-ekintzak bultzatzen dituzten, edozein arlotan indarrean dagoen lege-araudia betetzen ez duten, izaera xenofoa edo arrazista duten eta indarkeria bultzatzen duten orrialdeetara sartzea.
- Ordenagailuaren edozein anomalia edo funtzionamendu oker liburutegiko langileei jakinarazi behar zaie.
- Ekipo guztiak izozte sistema batekin konfiguraturik daude (Custodius txartela). Horrek esan nahi du ordenagailua behin itzali eta gero bere jatorrizko egoerara itzultzen dela eta biltegiatutako datu guztiak galtzen direla. Horregatik, ordenagailuan egin den lana mantendu nahi izanez gero, hauxe egin behar da: Erabiltzaileak bere lana ordenagailuaz kanpo dagoen memoria-gailu batean gorde (USB portuaren bitartez), bere posta elektronikora bidali edo CD/DVD batean grabatu beharko du. Liburutegia ez da gerta daitezkeen informazio galeraren erantzule izango..
- Liburutegiko langileek zerbitzuari amaiera emateko eskubidea erreserbatuta dute, ordenagailuaren erabilera araudi honetan bildutakoa ez bada.
- Liburutegiko langileek ordenagailuen mailegua erraztuko diete erabiltzaileei eta zerbitzu honi buruzko galderei erantzuniko diete, edota liburutegiko baliabide elektronikoei buruzkoak. Erabiltzailearen erantzukizuna da ordenagailuan instalatutako programak nola funtzionatzen duten jakitea

Arauk ez betetzea:

- Ordenagailua beranduenez ordubete geroago itzuliz gero, erabiltzaileak ez du bi egunez maileguz hartzeko aukerarik izango.
- Programen konfigurazioan aldaketak egitea: Zerbitzua 7 egunez etetea.
- Ordenagailu eramangarria gaizki erabiltzeagatik hondatzea: Ordenagailuan egindako kaltea konpontzeko kostua beregain hartzea eta zerbitzua urtebetez etetea.